BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

100

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 19koa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, Bilbao-Donostia trenbide-lineako Ermuko tartea eraikitzeko proiektuak eragiten dien ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzeko dena.

Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2012ko azaroaren 5eko Ebazpenaren bidez, Bilbao-Donostia trenbide-lineako Ermuko tartea eraikitzeko proiektua onartu zen.

Eraikitzeko proiektua Bilbao-Donostia trenbideko linearen egungo 43+398 KPan hasten da, Eitzaga aldean, eta bukatu, berriz, 45+139 KParekiko lotura-puntuan, Ermuko geltokitik atera ondorengo bihurgunearen ostean.

Jarduketa 1.600 m ingurukoa da, eta berekin dakar 1.250 m-ko trenbide bikoitzeko saihesbide baten desdoblamendua eta Ermuan geltoki berri bat egitea.

Proiektuaren eraginpeko lurrak eskuratzeko, eta eraginpeko ondasunak eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak horien identifikazio zehatzen Desjabetzeen eranskineko zerrenda eta partzela-planoak biltzen ditu.

Organo honek eskumena dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbide-azpiegituretako obrak egin ahal izateko nahitaezko desjabetze-jardunbideko izapideak egin eta ebazpenak emateko, hala ezartzen baitu Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren –azaroaren 30eko 328/2010 Dekretuaren bidez aldatua– 15.h) artikuluak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10.1.e) artikuluari dagokionean. Dekretu hori urtarrilaren 18ko 6/2011 Dekretuaren bidez bigarren aldiz aldatu zen.

Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluaren arabera, trenbide-linea berriak jartzeko edo lehendik daudenak handitu edo zabaltzeko proiektuak onartzen direnean, eta onespen horretan okupatu beharreko ondasunak zehaztuta badatoz, nahitaezko desjabetzeko eskakizunen eta jardunbidearen ondorioetarako, onespenak berekin dakar proiektua bera eta horren gaineko aldaketak herri-onurakotzat edo gizarte-interesekotzat jotzea, eta proiektuarekin batera doan zerrendan jasotako ondasun eta eskubideak lehenbailehen okupatu beharrekotzat aitortzea.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizitoki berekin dakarren arren proiektuaren eraginpeko ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ezartzen dutenez ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrera atera behar da, alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan daitezen, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Beraz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Bilbao-Donostia trenbide-lineako Ermuko tartea eraikitzeko proiektuak» erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean erakustea, ebazpen hau azkenekoz argitaratu eta biharamunetik aurrera hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal daitezen, okerrik baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 19.2 artikuluak eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea 1, Gasteiz).

Aipatutako epe horretan ondasun eta eskubide ukituen zerrenda Ermuko eta Zaldibarko udalen iragarki-oholetan jarriko da.

Eta horrela jakinarazten da, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 19a.

Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
JESÚS MARÍA BENAITO VILLAGARCÍA.

Bilbao-Donostia trenbide-lineako Ermuko tartea eraikitzeko proiektua

Ermuko udalerria

Finka zenbakia	Katastro-erref.			Jabea eta helbidea	Afekzio-mota (m^2)			Izaera	Planoetako erreferentzia
	Hiri barnekoa	Landa-lurra			Okupazio iraunkorra	Aldi baterako okupazioa	Bide-zortasun iraunkorra		
	Katastro erref.	Po-lig.	Par-tz.						
1		3	68	Arancibia Areitio, Jose Ignacio eta Salegui Amuchastegui Itziar		287		hostozabalen basoa	OT-01
						16		hostozabalen basoa	OT-05
						626	438	hostozabalen basoa	OT-04 / SP-05
						5019	623	larrea	OT-02 / SP-03
						155		matorral	OT-03
1.1		3	68	Bizkaiko Foru Aldundia		82		hostozabalen basoa	OT-05.1
						71		hostozabalen basoa	OT-04.1
2		3	74	Ardanza Ormaechea, Jesusa eta Ardanza Ormaechea, Dionisia eta Aramberri Ardanza, Francisco Javier	357	581		hostozabalen basoa	OT-09 / OP-03
						453		matorral	OT-08
						1		hostozabalen basoa	OT-07
2.1		3	74	Bizkaiko Foru Aldundia		27		hostozabalen basoa	OT-07.1
3		3	140	Pilar Barrutia Zubizarreta M.ª Victoria, Iñaki Urizar Barrutia		1105		laborea	OT-17
4		3	156	Ciarsolo Vergara HR		322		baso zurgaia	OT-13
5		3	157	Guisasola Artamendi, Pedro		28		baso zurgaia	OT-16
6		3	158	Muguerza Aramburu, Javier, Modesto y Garbiñe		56		baso zurgaia	OT-14
7		3	171	Olaechea Arriaga, María Esther, Maria Lourdes eta Miren Lorea		60		baso zurgaia	OT-12
7.1		3	171	Bizkaiko Foru Aldundia		29		baso zurgaia	OT-12.1
8		3	189	Excavaciones Bergaretxe, S.L.	675	557	232	larrea	OT-19 / OP-06 / SP-06
					496	1367	496	laborea	OT-18 / OP-07 / SP-07
9		3	211	Muguerza Aramburu, Javier, Modesto eta Garbiñe		66		baso zurgaia	OT-15

Finka zenbakia	Katastro-erref.			Jabea eta helbidea	Afekzio-mota (m^2)			Izaera	Planoetako erreferentzia
	Hiri barnekoa	Landa-lurra			Okupazio iraunkorra	Aldi baterako okupazioa	Bide-zortasun iraunkorra		
	Katastro erref.	Polig.	Partz.						
10		3	234	Arancibia Aretillo, José Ignacio eta Salegui Amuchastegui, Iciar	306	98		laborea	OT-11 / OP-04
					1565	61		hostozabalen basoa	OT-10 / OP-02
					686	216		baso zurgaia	OT-06 / OP-01
10.1		3	234	Bizkaiko Foru Aldundia	350	293		laborea	OT-11.1 / OP-04.1
					22	136		hostozabalen basoa	OT-10.1 / OP-02.1
					593	890		baso zurgaia	OT-06.1 / OP-01.1
11	034 021 01 001			Bizkaiko Etorbideko 3, 3 BIS eta 1 BIS-eko jabekide-erkidegoa		55		kalea	OT-20
12	034 018 12 011			Ermuko Udala	115	802		lur-zatia	MT-02 / MP-01 / SP-10
13	034 018 12 008			Zubizarreta e Iriondo, S.L.		65		lur-zatia	OT-21
14	034 024 01 006 001			Swain Inversiones, S.L.	11	52		lur-zatia	OT-22 / OP-07
15	034 024 01 004 001			Promotora Larkovi, S.A.L.	1	37		lur-zatia	OT-23 / OP-08
16	034 023 01 001 001			ETS		726	175	bidaiaren geltokia	MT-04 / SP-09
17				ETS		6015	8	burdinbidea	MT-03 / SP-08
18				Ermuko Udala	740	4783		kalea	MT-01 / MP-01
19				Ermuko Udala	231			kalea	MP-02
19.1				Bizkaiko Foru Aldundia	18			n-634 errepidea	MP-02.1

Zaldibarko udalerria

Finka-zen-bakia	Katastro-erref.			Jabea eta helbidea	Afekzio-mota (m^2)			Izaera	Planoetako erreferentzia
	Hiri barnekoa	Landa-lurra			Okupazio iraunkorra	Aldi baterako okupazioa	Bide-zortasun iraunkorra		
	Katastro-erref.	Po-lig.	Partz.						
20		5	208	Vildosola San Martin, Felix			14	laborea	SP-01
21		5	172	Murga Murgategi, María Teresa			117	laborea	SP-02
22		5	173	Arancibia Areitio, José Ignacio eta Salegui Amuchastegui, Itziar			9	laborea	SP-04